PAISAIAREN KATALOGOA ETA ZEHAZTAPENAK.

**DONOSTIALDEA BIDASOA BEHEA EREMU FUNTZIONALA**

CATÁLOGO DEL PAISAJE Y DETERMINACIONES DEL PAISAJE.

**ÁREA FUNCIONAL DE DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN BAJO BIDASOA**

# III

# PAISAIAREN KATALOGOA
# CATÁLOGO DE PAISAJE

2. ETAPA

## PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK



**Koordinazio-lana**: Carles Escrivà Camarena [1] eta Pablo Sánchez Ramos [2].

**Erredakzio taldea:** Carles Escrivà Camarena [1], Pablo Sánchez Ramos [2], Angel Lertxundi Ibarguren [1], Francisco Javier Murillo Morón [1], Raquel López Hernández [2].

(1) BASOINSA SL.
(2) SIGMATEC MEDIO AMBIENTE SL.

# 2. ETAPA PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK


1 SARRERA ..... 1
1.1 LEGEZKO ESPARRUA ..... 1
1.2 METODOLOGIA ..... 3
1.2.1 Biztanleriaren asmoak batzea eta identifikatzea ..... 3
1.2.2 Ebaluazioa, sailkapena eta proposamena, irizpide teknikoak oinarri hartuta ..... 4
1.2.3 Paisaiaren Europako Hitzarmenetik eratorritako printzipio gidariak ..... 5
2 PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK ..... 7
2.1 EREMU FUNTZIONAL OSOARENTZAT IZAERA OROKORRA (G). ..... 7
2.2 HIRI KOKALEKUAK ..... 8
2.3 GARRAIO, ENERGIA ETA TELEKOMUNIKAZIOEN AZPIEGITURAK ..... 9
2.4 ERAUZKETA-LANAK, ZABORTEGIAK ETA HONDAKINEN TRATAMENDU-PLANTAK ..... 10
2.5 ABELTZAINTZA ETA NEKAZARITZAKO ERABILERAK ..... 10
2.6 BASO ERABILERAK ..... 11
2.7 KULTURA-ONDAREA ..... 11
2.8 PAISAIA NATURALAK ..... 12
3 EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK ..... 15
3.1 PKH OROKORRETARAKO EKINTZAK ..... 15
3.2 HIRIGUNEAK ..... 20
3.3 GARRAIO, ENERGIA ETA TELEKOMUNIKAZIOEN AZPIEGITURAK ..... 25
3.4 ERAUZKETA-LANAK, ZABORTEGIAK ETA HONDAKINEN TRATAMENDU-PLANTAK ..... 28
3.5 ABELTZAINTZAKO ETA NEKAZARITZAKO ERABILERAK ..... 29
3.6 BASOGINTZA ERABILERAK ..... 31
3.7 KULTURA-ONDAREA ..... 33
3.8 PAISAIA NATURALAK ..... 37
4 PAISAIA ALDETIK INTERES BEREZIKO EREMUAK ..... 41
4.1 LEHENERATZE, HOBETZE EDO ERALDAKETARAKO PROPOSATUTAKO PIBE-AK ..... 42
4.2 BABESERAKO ETA BALIOA EMATEKO PROPOSATUTAKO PIBE-AK ..... 43
**BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK** ..... 45

# 1 SARRERA

Paisaiaren Europako Hitzarmenak (Florentzia, 2000) lurralde baten “paisaia jakin baterako Paisaiaren Kalitateko Helburuak” definitzen ditu “inguruko paisaiaren ezaugarriei dagokienez, herriek dituzten helburuen formulazio modura, eskumena duten agintarien aldetik”. Paisaiaren Kalitateko Helburuek (PKH) paisaia inplikatua dagoen udal ekintza orori zentzua eman, bideratu eta zuzendu behar dituzte eta oro har gizartearen nahiak ez ezik, paisaian esku hartzen duten eragile guztienak ere barne hartu behar dituzte. Paisaiaren Europako Hitzarmenaren ikuspegi honetatik, helburuen formulazioak lurraldearen antolamenduan paisaia zaindu, kudeatu eta antolatzeko politiketan buru egin behar luketen printzipioak integratzea du helburu eta baliabiderik boteretsuena da paisaiak zaindu eta hobetzen laguntzeko garapen iraunkorreko esparruan eta baita, bertako biztanleen bizitza maila adierazteko ere (López et al, 2011).Bestetara, zalantzarik ez, eremu funtzionalean kalitateko paisaia lortzeko ekintza publiko zein pribatuak zuzentzeko balio handiko baliabide dira eta bereziki, gure lurralde eta ingurumenaren egoeraz jabetu eta sentsibilizazioaren hastapenetan gauden aldetik, zabalkunde eta heziketa sozialari dagozkion haiek zuzentzeko ere (López et al, 2011).

Oinarri hau abiaburu hartuta diseinatu dira Paisaiaren Kalitateko Helburuak eskuratzeko neurri eta ekintza egokiak eta aurreikuspena eta zuzenketako planteamendutik zuzendu edo bideratu nahi da paisaiaren bilakaera; honela, bada, etorkizunari begira, sektoreen arteko egoera gatazkatsuak saihesten dira eta paisaiaren baliabideari dagokionez, jada existitzen diren arazoentzako irtenbideak proposatzen dira.

Bada, helburu nagusia paisaia-balioen egoera zaindu, eta are, hobetzea da. Etorkizunean potentzialki sortuko diren azpiegitura eta zerbitzu, hiri-, turismo- edo industria-garapenen zuzkidura beharrezkoa da bertako biztanleen bizi-maila hobetzeko eta biztanleria aktiboa mantentzen laguntzeko. Garapen berri hauen lurralde-eredua espazioen aiurriari egokitu beharko zaio eta paisaia baliotsuen duten espazio haien babesa eta zaintza bermatu beharko du.

## 1.1 LEGEZKO ESPARRUA

Paisaiaren Kalitateko Helburuak eta ekintzen proposamenak 2000ko urriaren 20ko Paisaiaren Europako Hitzarmenean (PEH) jasotako printzipioak artatu nahi ditu batetik (Europako Kontseilua), espainiar estatuak berretsitakoa (2008ko otsailaren 5eko EAO) eta Espainian 2008ko martxoaren 1az geroztik indarrean dena, eta bestetik, 90/2014 Dekretuaren legegintzako esparrua, *EAEren lurraldearen antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzkoa.*

**Paisaiaren Europako Hitzarmenaren testuingurua**

Euskal Autonomia Erkidegoa formalki atxiki zitzaion Paisaiaren Europako Hitzarmenari Jaurlaritzaren 2009ko uztailaren 21eko Erabaki bidez, atxikimendu horrek berekin dituen konpromisoak bere eginez; horien artean, azpimarratzekoa da paisaiak juridikoki aitortzen direla giza inguruaren oinarrizko elementu modura, kulturako ondare komunaren adierazpide modura eta nortasunaren oinarri modura.

Paisaiaren Europako Hitzarmenak agintzen du agintaritza publiko eskumendunek finkatuko dutela zein politika baliatu paisaia gaietan, printzipio orokorren multzoa, neurri bereziak hartzea bideratuko duten estrategia eta zuzentarauak paisaia babestu, kudeatu eta antolatze aldera, ingurumeneko paisaia ezaugarriei dagokienez biztanleen asmoak besarkatuko dituztenak .

Paisaiaren Europako Hitzarmenaren ondorioetarako, honako definizio hauek ematen dira (1. art.):

- “paisaiak babestea” da paisaia baten ezaugarri esanguratsu edo bereizleak zaindu eta gordetzera zuzendutako ekintzak egitea, berez edo gizonaren eskuaz sortu izanaren ondorioz duten ondare-balioak justifikatzen dituela.
- “paisaien kudeaketa” da, garapen iraunkorreko ikuspegia abiaburu hartuta, paisaiaren mantentze-lan erregularra bermatuko duten ekintzak egitea, gizarte, ekonomia eta ingurumen prozesuek eragindako aldaketak bideratu eta harmonizatzeko helburuarekin.

- "paisaiaren antolamendua" da aurrera begirako izaera duten ekintzak, bereziki indartuak, gauzatzea, paisaiak hobetu, berroneratu edo sortze aldera.

Honela, bada, Donostialdeko Eremu Funtzionaleko paisaiek datozen urteetan eraldaketak izan ditzaketela aintzat hartuta (azpiegituren sorrera, hiri hedapenak...) ezinbestekoa da paisaiak antolatzeko estrategia diseinatzea, Paisaiaren Europako Hitzarmenak agintzen dituen neurri orokorrak betez (5. art.):

- Paisaiak juridikoki giza inguruaren oinarrizko elementu modura aitortzea, ondare komun kultural eta berezkoaren aniztasunaren adierazpide eta nortasunaren oinarri modura.
- Paisaia gaietan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko politikak zehaztu eta aplikatzea, horretarako beharrezkoak diren neurri berariazkoak hartuta.
- Publikoak, tokiko eta eskualdeko agintariek eta paisaia gaietako politikak formulatu eta ezartzean interesa duten beste alde batzuek parte hartzeko prozedurak finkatzea.
- Paisaia lurralde antolamenduko eta hiriko politiketan integratzea eta kultura, ingurumen, nekazaritza, gizarte eta ekonomia gaietako politiketan; baita, paisaiaren gainean eragin zuzen nahiz zeharkakoa izan dezaketen bestelako zeinahi politiketan ere.

**90/2014 Dekretuaren testuingurua, EAEko lurraldearen antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzkoa**

Dekretuaren xedea, bada, araututako baliabideak finkatzea da, hartara arauzko aurreikuspenak betearaztearren eta paisaia lurraldearen antolamenduan integratzeko helburua lortzearren. Horretarako, lehen-lehenik lurraldearen antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko baliabideak identifikatzen ditu, hala nola: Paisaiaren Katalogoak; Paisaiaren Zehaztapenak; Paisaiaren Ekintza-planak; Paisaia integratzeko azterlanak; eta prestakuntza, sentsibilizazio eta laguntza neurriak (EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspena). Oinarrizko agiria. 2015):

*- Paisaiaren Katalogoei dagokienez: Agiri deskribatzaileak eta aurrera begirakoak dira eta horien esparrua da Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (LAG) definitutako eremu funtzional bakoitzeko paisaia osotasunean hartuta. Katalogoen edukiak honakoa besarkatuko du: Ikus-eremu eta paisaia egiturak mugatu eta balioztatzea eta paisaia aldetik interes bereziko guneak bereiztea, duten berezitasun, narriadura, ikusgarritasun eta nortasunagatik edo estetikaren edo pertzepzioaren ikuspegitik ezaugarri nabarmenak izateagatik; paisaiaren konfigurazioan eragina duten prozesuak identifikatzea; ibilbideak eta paisaia behatzeko tokiak zedarritzea; paisaia-unitateak mugatzea; paisaiaren kalitateko helburuak zehaztea, biztanleriaren beharrizanak aintzat hartuta; helburuak eskuratzeko neurriak proposatzea; adierazleak proposatzea.*

*- Paisaiaren Zehaztapenei dagokienez: Paisaiaren Katalogoetatik ateratako irizpideak dira, paisaiaren kalitateko helburuak garatzen dituztenak, helburu horiek erdiesteko hartu beharreko neurriak identifikatuaz. Dagozkien eremu funtzionalen Lurraldeko Plan Partzialei (LPP) txertatuko zaizkie.*

*- Paisaiaren Ekintza-planei dagokienez: Paisaiaren Katalogoek identifikaturiko eta paisaiaren Zehaztapenetan jasotako interes bereziko eremuetarako esku-hartze baliabideak dira. Diagnostiko bat jasoko dute, eskuratu asmo dituzten paisaiaren kalitateko helburuez gain. - Paisaia Integratzeko Azterlanei dagokienez: Proiektu eta obren egikaritzak paisaiaren gainean eragin ditzaketen ondorioak aztertzen dituzten agiriak dira; baita, obra horiek paisaian integratzeko neurriak ezartzen dituztenak ere. Azterlan horiek paisaiaren deskribapena, proiektuaren ezaugarriak eta paisaiaren integrazio irizpideak besarkatuko dituzte.*

*- Sentsibilizazio-, prestakuntza-, ikerketa- eta babes-neurriei dagokienez: Euskal Administrazio Publikoak eta sektore publikoko erakundeek beharrezko diren ekintzak bideratuko dituzte paisaia modu egokian babestu, kudeatu eta antolatzeko, betiere lurraldearen antolamendu orekatu eta iraunkorraren baitan.*

Azkenik, komeni da gogora ekartzea badirela paisaiaren baliabidearekin elkar eragiten duten beste lege batzuk eta horien ezarpena aintzat hartu behar da.

Hiru dira lurraldea antolatzeko tresnak eta horietako bat, hain zuzen ere, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak osatzen du, beste biak formulatzeko oinarri eta erreferentziazko esparru orokor dena, hau da, Lurralde Plan Partzialak eta Lurralde Plan Sektorialak.

Indarrean dauden Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak lau ataletan hezurmamitzen dira: Lehenik eta bat, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen lurraldeko eredua eraikitzeko oinarriak bereiziko dira. Bigarren tokian, lurralde eredua bera definituko da. Hirugarren tokian, ongizaterako eta eraberritzerako lurralde-ekimenak bereiziko dira. Eta azkenik, laugarren tokian, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak ezartzeko gako eta erreferentzia sorta bat ematen da. Lurralde Plan Partzialak mamitzea izan da Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen garapen nagusia. Lurralde Plan Partzialak udalaz gaindiko plan-sistema bat borobiltzen dute, Gidalerroen oinarrizko alderdiak lurraldean xehetasunez mamitzen dituztenak, besteak beste, ingurumen fisikoa babesteko eremuak, bizilekuen garapenerako esparru zabalak eta jarduera ekonomikoetarako espazioak, azpiegitura eta ekipamenduen sistemak, hiri-berrikuntzarako jarduerak, e.a. Maiz sarritan, baliabide hauek sortu dira udal planeamenduko proposamenak Lurralde Plan Sektorialeko proposamenekin uztartzetik. Honela, bada, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek bereizitako eremu funtzional bakoitzerako aurreikusitako 15 Lurralde Plan Partzialetatik hamaika behin betiko onartu dira; bi behin betiko onartzear daude; eta beste bi, tramitazio fasean daude. Berebat, Lurralde Plan Sektorialak garatu dira, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Lurralde Eredua inplementatzeko baliabide giltzarri izan direnak. Horietako bederatzi jada behin betiko onartu dira; beste hiru garapen fasean daude; eta indarreko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan aurreikusitako zortzi ez dira izapidetzen hasi. Hitz labur esateko, honako eremu hauetako Lurralde Plan Sektorialak garatu dira: ingurumen, azpiegitura eta lurzorukoak. Lurralde Plan Partzialak eta Lurralde Plan Sektorialak dira Lurralde Antolamenduaren Gidalerroei estuen uztartzen zaizkien eta lurraldean garrantzia handien duten elementuak; ez dira, baina, gidalerroen ildoari jarraikiz lurraldearen eraldaketan eragina izan duten bakarrak. Izan ere, Ingurune Fisikoaren esparruan Natura-gune Babestuen sistema garatu da ia bere osoan eta gaur egun esparru eta kategoria kopuru zabala besarkatzen du (Natura-parkeak, Babestutako biotopoak, Zuhaitz apartekoak, Natura 2000 Sarea Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) edo Hegaztientzako Babesgune Berezia (HBB)).Gainera, natura eta ingurumena babesteko gaietan legeria zabala garatu da; baita askotariko jarduera zehatzak gauzatu ere, espezie basatiak berreskuratzeko planetatik hasita basogintzako programetara, ingurumena kudeatzeko programak, e.a. (EAEko Lurralde Antolamendurako Norabideen berrikuspena. Oinarrizko agiria. 2015).

## 1.2 METODOLOGIA

Paisaiaren Kalitateko Helburuen (PKH) formulazioa eta horiek erdiesteko ekintza eta proposamenak askotariko ikuspegitatik egiten dira, bai jatorrian, bai espazioan ezartzen direnean ere. Sorreran, horretarako abiarazitako parte-hartze publikoko prozesuan jasotako asmo eta jomuga ugari eta askotarikoak islatzen dira.

Honako Paisaiaren Katalogo hau mamitzeko ardura duen lantalde teknikoaren egitekoa, hasierako fase batean, ikuspegi zientifiko batetik gizartearen helburuak paisaiaren egungo egoeraren ebaluazio eta diagnostikoarekin alderatzea da, horiek sakondu eta zehaztearren. Bigarren fase batean, Paisaiaren Kalitateko Helburuak formulatzen dira eta horiek ez dira bi atalen batuketa ordenatua baizik: gizartearen nahiak (1) eta paisaia baliabidearen diagnosia (2), erredakzio taldeak zientzia-teknika irizpide bitartez gauzatutakoa.

### 1.2.1 Biztanleriaren asmoak batzea eta identifikatzea

Hiritarren parte-hartzeak garrantzizko tokia betetzen du Paisaiaren Katalogoan, dela gizarteak paisaia nola hautematen duen ezagutzeko, dela Eremu Funtzionaleko biztanleen asmoak biltzeko, paisaiaren kalitateko helburuak zehazte aldera (Parte-hartze publikoa, 4. eranskina). Katalogoaren diseinuak helburu nagusitzat du paisaiarekin zuzeneko lotura duten auzien gainean gizarteak duen iritziaren ezagutzan aurrera egitea eta horren arabera, begirada ugarietatik kalitateko helburuen diagnostiko partekatua egiten saiatzea.

Helburuak formulatzeko honako hauetatik eskuratutako ondorioak hartu dira aintzat:

- Paisaiako eragileei egindako elkarrizketa landuetatik (aipatutako taldeetan nor diren pertsonak),
- mahai teknikoetatik,
- orokorrean publikoari zabalik dauden baina interes-taldeko direnei berariaz zuzenduriko parte-hartze foroetatik,
- Internet bidezko kontsulta publikotik.

### 1.2.2 Ebaluazioa, sailkapena eta proposamena, irizpide teknikoak oinarri hartuta

Paisaia baliabidearen egungo egoeraren ebaluazioa egitea ezinbesteko betekizuna da, bilakaerarik egokiena zeinek beharko lukeen izan erabakitzen hasi aurretik. Izan ere, Katalogo honen idazkeraren 1. fasean gauzatutako *Paisaiaren identifikazio eta ezaugarritze* prozesuaren ondoren eskuratutako paisaiaren ezagutza teknikoa eta osotasunezko ikusmoldea atal ezinbesteko eta osagarria da gizarteak paisaiaz dituen asmoekiko. Honela, bada, jaso diren asmoak paisaiaren egungo egoeraren ebaluazio eta diagnostikoarekin alderatzea honako hauetan dago oinarritua:

**Kokagunean:** Jaso ditugun asmoak zenbaitetan oso orokorrak izan ohi dira. Beste batzuetan, kokaleku zehatzagokoetan, arreta gune jakinetara mugatzen dute; badira, ordea, jarduerak gauza daitezkeen antzeko izaerako toki gehiago. Beharrezkoa da, bada, argi eta garbi bereiziriko muga bidez Paisaiaren Kalitateko Helburuak gauzatuko diren eremua finkatzea. Honi dagokionez, mugatutako Paisaia Unitateak berez dira lurraldea kudeatzeko eremuak, paisaiaren baliabidea baliatuta. Paisaia aldetik balio homogeneoak erakusten dituzte, bai kalitate aldetik (estetikoak, ekologikoak, sozialak...) bai ikuspegiaren hauskortasun eta kalteberatasun aldetik. Informazio honek bide ematen du, esate batera, herritarrek -erabat edo zati batean- gorde nahi dituzten Unitateekiko lotura ezartzea. Eta bide ematen du proposamen hori beste batzuekin hedatzea, paisaia aldetik babestuak izateko pareko merezimendua dutenak edo eraldaketaren bat gertatuz gero, berroneratzeko zailtasun handiagoa dutenak. Berebat, hobekuntzarako ekintzak zeinetan diren lehentasunezko erabakitzeko bide ematen du, horien bideragarritasun teknikoaren eta kostua/gizarte-onura ratioaren arabera. Aldi berean, paisaiaren karakterizazio prozesuan eta paisaiaren Unitate bakoitzean, paisaiako guneak eta elementuak aztertu dira, non mahairatutako helburuak erdiesteko ekintza zehatzak proposatuko diren.

**Formulazioa eta sailkapena:** Adierazi bezala, Paisaiaren Kalitateko Helburuak gizartearen asmoen eta paisaia baliabidearen diagnosiaren batuketa ordenatua dira, erredakzio taldeak zientzia-teknika irizpide bitartez egindakoa. Horien formulazioan, bada, ezinbestekoa da izendatu eta sailkatzea, lurraldea kudeatu eta planifikatzeko baliabide anitzetan modu zuzenean baliatzeko moduan, eta aldi berean Paisaiaren Europako Hitzarmenak zehaztutako irizpideei erantzutea; aparteko arreta jarriko da Donostiako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialean (Donostialdea-Bidasoa Beherea).

Paisaiaren Kalitateko Helburuen sailkapen-egitura bi mailatan gauzatzen da: Lehenengo sailkapen mailak kudeaketarako baliabide ugarietara txertatzeko bide ematen du, lurralde-espazioen antolamendu eta erabileraren arabera eta jarduera ekonomiko eta sozialak lurraldean kokatzeko prozesu nagusien arabera:

- Eremu Funtzional osoarentzat izaera orokorra (G).
- Hiri kokalekuak (bizilekutarakoak, industrialak eta zerbitzuetakoak) (U).
- Garraio, energia eta telekomunikazioen azpiegiturak (T).
- Erauzketa-lanak, zabortegiak eta hondakinen tratamendu-plantak (EV).
- Nekazaritza-abeltzaintzako erabilerak (A).
- Baso erabilerak (F)
- Ondarea (P).
- Paisaia naturalak (N).

Bigarren sailkapen mailan idazpuru bakoitza hainbat kategoriatan zati-banatzen da -Paisaiaren Kalitateko Helburuen nolakoa zein den-, Paisaiaren Europako Hitzarmenetik eratorritako irizpideen arabera:

- Paisaia zaindu eta mantentzea (C)
- Paisaia berroneratzea (R)
- Paisaia hobetzea (M).
- Paisaiari balioa eta hedapena ematea (PV).

### 1.2.3 Paisaiaren Europako Hitzarmenetik eratorritako printzipio gidariak

Ondotik zehaztutako printzipio gidariek Paisaiaren Kalitateko Helburuak formulatu eta sailkatzeko irizpideak definitzen dituzte, Paisaiaren Europako Hitzarmenari jarraikiz:

**Paisaia zaindu eta mantentzea (C)**

Paisaiaren Kalitateko Helburuen formulazioa paisaia gizartearen eta datozen belaunaldien onurarako egungo egoeran mantenduko bada, paisaia ezaugarritzen duten paisaia-balioak eta ezaugarri esanguratsuak gordetzera zuzendua dago (natura, kultura eta ikusmenezkoak). Paisaiari bere horretan eustea edo horren narriadura zein galera eragoztea modu zabalean formula daiteke Eremu Funtzional osoko Paisaia unitateentzat edo osagai orokor komunentzat; baita, gune berezi edo elementu jakinetara zuzenduta. Lehenengo hautuan zaintza da proposatzen den ekintza. Nahiz jarduera berriak garatzeak zenbait paisaiari bere horretan eutsi ezina ekarriko duen, egun hautematen ditugun modu horretan, aurreikus daitezke zenbait helburu paisaia horiek kalitatezko muga onargarrietan mantentzeko. Bigarren kasuan, elementu zehatzak gordetzeko proposamenari dagokiona hain zuzen ere, helburua hauen ikus-ezaugarriak bere osoan gordetzea litzateke.

Horrek eskatzen dituen ekintzak batetik, lurraldea babestera zuzendutakoak izango dira, eta bestetik, lurraldea kudeatzera emandakoak, Paisaiaren Europako Hitzarmenak agintzen duen moduan paisaia bati modu erregularrean eutsiko zaiola bermatzearren; horretarako, gizarte, ekonomia eta ingurumen prozesuek eragindako aldaketak kontrolatu eta kudeatu beharko dira, garapen iraunkorraren ikuspegitik guztien arteko harmonizazioa bilatuz.

**Paisaia berroneratzea (R)**

Egun narriatua dagoen edo jada existitzen ez den paisaia giza-jarduerak eraldatu aurreko jatorrizko egoerara berroneratzeko PKHen formulazioak Eremu Funtzionalean paisaia horrek presentzia izatea bermatu nahi du eta etorkizunean iraunaraztea. Berroneratzearen helburua da espazio baten ikusmenezko pertzepzioa bertako biztanleen oroitzapenean dagoenarekiko antzekoa edo bilakaeran bat datorrena izatea.

Paisaia berroneratzeko beharrezkoak diren lurralde antolamenduko ekintzen abiapuntua narriadura eragin duen hura deuseztatzea da. Jatorrizko paisaia berreskuratzeko ikus-inpaktu negatiboak deuseztatzea da, zalantzarik gabe, gizarteak gehien eskatzen duen nahietako bat. Izan ere, foku-guneak izan ohi direnez, paisaiari balioa gutxitzen diote nabarmen eta paisaiaren izaera eraldatu ere egin dezakete. Zenbaitetan, jatorrizko morfologiak berreskuratu behar izaten dira, paisaia naturalaren “azala” berroneratzeaz gain eta hori guztia, ahal den heinean, paisaia hori osatzen duten osagaien jarduera autonomo eta auto-erregulatuaren bitartez.

**Paisaia hobetzea (M)**

PKHen formulazioa paisaia batek egoera hoberako bilakaera izatea lortzearren, aurreko kategoriaren muinari eusten dio; ordea, hemen helburua ez da eraldaketa gertatu aurreko jatorrizko egoerara itzultzea, zailtasun tekniko edo sozioekonomikoak daudelako edo eragindako kalteak atzera bueltarik ez duelako, baizik eta elementu berrien bitartez, edo jada daudenen kudeaketa bitartez paisaia hori hobetzea.

Jatorrizko paisaiarekiko degradazio maila altua duten paisaiak daude, balio handikoak direnak. Oro har, espazio handietan, Paisaia-unitateetan esate batera, osotasunean aiurria berroneratzea helburu desiragarria izan badaiteke ere, praktikan nekez lor daitekeen helburua da. Batetik, badira espazioak non berroneratzea materialki ezinezkoa den

degradazioa atzeraezina delako. Beste batzuetan, alta, berroneratzea egin badaiteke ere, horren kostu ekonomikoak edo kostua/gizarte-onura ratioak aldez aurretik bestera eragiten du (López et al, 2010). Kontrara, eremu baten hobekuntza helburu lorgarria da, askotarikoak baitira eskuratu asmo diren hobekuntza mailak. Zaintza helburuak bezalaxe, hobekuntza modu zabalean egin daiteke Paisaia unitateetan edo Eremu Funtzional osoan komunak diren osagai orokorretan edo, baita, paisaiaren inpaktu negatibo zehatzetara zuzendu. Kopurua nahiko handia da eta tipologia askotarikoa; honenbestez, helburuak finkatzean lehentasuna ematen zaie pertzepzio orokorrean edo herritarrek gehien eskatutako eremuetan aldaketa positibo esanguratsuagoa izaten lagun dezaketen hobekuntzei.

Paisaia hobetzeko beharrezko diren lurralde antolamenduko ekintzak ikus-inpaktua arintzeko proposatzen dira, giza-jarduerek eragindakoak, eta helburua paisaia egoera hobe batera ekartzea da, begietara erakargarriago egingo duena. Sarri askotan ezin arindu daitezke ikus-inpaktuak eragiten dituzten kausak eta jarduerak alderdi estetikoa hobetzera zuzentzen dira, paisaia integratzeko ekintzen bitartez. Azkenik, degradazio maila oso handia bada edo jatorrizko paisaia galdua bada, hobekuntzarako ekintzen bidez aldaketa eragiten da eta paisaia berriak sortzen. Lurralde kudeaketako ekintzak dira, eraldaketak Eremu Funtzionaleko paisaia orokorrean integratzea bermatuko dutenak, izan ere, halakoetan erabilera aldatzeko aukera dago.

**Paisaiari balioa eta hedapena ematea (PV)**

Paisaiari balioa eta hedapena ematea helburu duen PKHen formulazioak, balio eta ezaugarriek, erantzun ematen diote batetik Paisaiaren Europako Hitzarmenaren jarraibideei gizarte zibil, erakunde pribatu eta agintaritza publikoak sentsibilizazioa eta ingurumen-hezkuntza areagotzeko dagoen beharrari, paisaiek duten balioei dagokienez, eta horiek hartzen duten lekua eta eraldaketa. Bestetik, paisaiaren baliabidea bertako biztanle eta erabiltzaileen ongizatea hobetzeko gailu modura baliatzea du helburu, Donostialdeko Eremu Funtzionalean sortutako gaien marka modura funtzionatuko duen nortasun zeinu izango da eta zeharka, erakargarri turistikorako eragile.

Helburu hauek erdiesteko ekintza nagusiek hezkuntza eta prestakuntza programen antolamendutik hasita, hedapen kanpainen diseinua eta paisaiaren baliabidera irispena eta gozamena izatea errazteko ekintzak besarkatzen dituzte.

# 2 PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK

PKHak metodologiaren garapenean azaldu dugun egituran erakusten dira, zeinak kudeaketako baliabide askotarikoetan txertatzea bideratzen duen. Mota bakoitzari dagokionez, PKH izaera orokorrarekin aurkezten dira Eremu Funtzionaleko paisaiaren konfigurazio orokorra egiteko hasieran, eta hortik abiatuta, PKH berariazkoak formulatzeko ondoren.

Ondotik Donostialdeko Eremu Funtzionaleko PKHak zerrendatuko ditugu; PKHak eskuratzeko proposatzen diren ekintza orokorrak, zein kokalekutan garatuko diren ekintzak, eta horien kontrolerako adierazleak.

## 2.1 EREMU FUNTZIONAL OSOARENTZAT IZAERA OROKORRA (G).

Katalogo honetan buru egiten duen hats orokorra Eremu Funtzionaleko paisaia-balioak zaintzea da eta horiek lurralde-esparru heterogeneo eta askotarikoan islatzen dira, naturaletatik hasita guztiz eraldatu eta oso dinamikoak direnetara hartzen dutenak. Lanerako baliabide sorta eskaini asmo da, paisaiak dituen erabileren eta urteen poderioz sortzen direnen artean integrazio harmonikoa izango duen kudeaketa eta antolamendua bideratuko duena, zeinahi dela ere horren izaera: naturala, nekazaritzakoa edo eraikitakoa. Hitz labur esateko, paisaiaren balioak zaindu eta hobetzea, jarduera ekonomiko iraunkorrekin modu koordinatuan, bertako biztanleak harro egoteko paisaia izan dadin eta bizi-maila hobetzen lagun dezan.

Paisaia baliabideari dagokionez planeamenduan nagusituko den printzipio gidari orokorra da **etorkizuneko garapen-guneak kokatzeko orduan, aukerak aztertzen direnean, paisaia pisu handiagoarekin txertatuko dela** plangintzan. Paisaian eragin negatibo handien izan dezaketen haiek (industri eremu berriak, energetikoak, erauzketa guneak, zabortegiak, plataforma logistiko handiak...) paisaiak kalitate txikiagoa erakusten duen guneetan kokatu behar lirateke edo paisaia-balioak eta lurraldearen bestelako baliabideak galtzea urriagoa izango den tokietan. Printzipio honekin batean, Donostialdeko Eremu Funtzionalaren etorkizuneko garapenean ezinbestekoa da **hirigintza-arauetan paisaiaren integrazioa modu eraginkorragoan txertatzea.**

Halaber, **paisaia lurraldearen baliabidea da eta balioa eta hedapena emateak** bertako biztanleen bizi-mailaren hobekuntzan eragin zuzena du. Gizarteak baliabide hau orokorrean preziatzea bultzatu nahi bada, **zabalkundea ematea** da lehen-lehenik urratu beharreko bidea eta honenbestez, lurralde batekiko atxikipena; horrek guztiak zaindu, hobetu edo kudeatzeko neurriak eskatzea eta hartzea ekarriko du. DONOSTIALDEA eremu funtzionaleko biztanleek beren paisaia multzoa ezagutu eta preziatzea oinarri-oinarrizko baldintza da paisaia zaintzeko eskatu eta beraiek ere zaintzen eta hobetzen inplikatzeko. Gogoan izan behar da hobetzeko mahairatu diren helburuetarik asko jarduera pribatuarekin daudela lotuak. Batzuetan, laguntza publikoak pizgarri izango dira hobekuntzak txertatzeko. Ordea, hobekuntzak ez zaizkio bide honi soilik meneratuko, izan ere administrazioen aurrekontua mugatua izan ohi da eta ez dira beti helburu hauetarako behar hainbateko kontu-sailak bereizten. Bada, biztanleak herrietan estetika bat izatera inplikatzeak, bertako paisaiak zaindu eta hobetzera, azken batean, biztanleria osoaren bizi-kalitatean eragina duen zera da. **Balioa ematea** lurraldea garatzeko eragile izan daiteke, egungo turismo guneak alde batera utzita, batik bat Donostiako turismo gunea. Eremu funtzionaleko paisaiek eta horiek uztartzen dituzten azpiegitura berdeek gizartea hobetzeko ahalmena dute. Batetik, paisaia ahalik eta biztanle kopuru handienak gozatzea lortzeak ezinbestean hobetzen du euren bizi-kalitatea. Bestetara, “paisaia” kontsumitzen duen pertsona kopuruak gora egitea aukera bikaina da tokiko ekonomietan laguntzeko eta hirikoa ez den biztanleriari eusteko. Alabaina, “kontsumo” hori zeharkakoa ere izan daiteke. Zenbait produktu jatorrizko paisaiekin uztartzeak merkatuan balio erantsia aitortzen die eta horrek ekoizleak paisaia modu iraunkorrean zaindu eta hobetzera bultzatzen ditu. Bistakoen dugun adibidea sagardoarena dugu, nahiz ez den bakarra.

Amaitzeko, mahai gaineratu diren helburuak lortzeko eta bereziki ondoko ataletan jasoko ditugun haiek eskuratzeko, administrazioek paisaia aztertu eta kontrolatzeko ekintza eraginkorragoak aurkitzeko erronka dute, Donostialdea eremu funtzionalaren etorkizuneko paisaia zaindu eta hobetzea bermatuko dutenak.

**Eremu Funtzional osoarentzat izaera orokorreko PKH. (G).**

**G.1** *Paisaiaren baliabideari indar handiagoa aitortu, etorkizuneko garapen-guneak aurkitzeko orduan aukerak aztertzen direnean.*

**G.2** *Hirigintza-arauetan paisaia modu eraginkorragoan txertatu.*

**G.3** *Donostialdea eremu funtzionaleko paisaiaren balioa hedatu berau zaindu eta hobetzeko bide modura eta garapen ekonomikoaren eragile modura.*

**G.4** *Hiritarren eskura jarri paisaiarako irispidea eta gozatzeko aukera.*

**G.5** *Paisaia baliabidearen gaineko zeharkako kontrolak eta azterketa areagotu.*

## 2.2 HIRI KOKALEKUAK

Erdi Aroaz geroztik, Eremu Funtzionalak haran ugarien hezurdura baliatu du antolatzeko. Hirigune nagusiak merkataritzako jarduera-gune modura garatu ziren, itsas edo ibai portuei loturik, barne aldea kostaldearekin lotzeko ibilbideetan kokaleku estrategikoa izan ohi zutelako. Bada, antolamendu historiko honi gaur egun bere horretan eusten zaio. Joan den mendeko "*desarrollismoan*" hirietako kokalekuak komunikazio-korridoreetan zabaldu ziren, haranak eta sakonuneak industria guneekin batera beteaz; garai gertuagokoetan topografia hain aldeko ez duten mendi-hegaletara iritsi dira. Hiri korridore erdijarraitua da, itsasbazterrarekiko paralelo datorren barne-lerro batean zehar konurbazio ezaugarriak dituena; bertan goialdeko auzoak, alde zaharrak, dentsitate txikiko hazkuntza-guneak eta industria-gune handiak, guztiak batean bizi dira. Salbuespen modura, barru aldeko mendietan barrena murgiltzen diren auzo txikiak ageri dira sakabana.

Zabal onartutako nahia da itxura zainduko duen hiri paisaia izatea, gizartearen beharrizanen arabera berritu eta haziko dena, lurraldearen baliabideak arriskuan jarri gabe. Finkaturik dauden kokalekuetan, baliorik handieneko herrietan gehien erakusten eta ezagutzen den hiri azala eta profila (skyline) edo tradiziozko arkitektura landa eremuetan zaindu eta hobetzea du helburu. Baina, baita ikus-balio txikiko kokalekuen itxura hobetzea ere (XX. mendearen bigarren erdialdean eraikitako goialdeko auzoak, industria poligonoak...) bereziki periferiako eraikinak kokatzen diren hegalean eta altueran gailentzen diren haietan. Hirietako "atzealde" hauen edo industria poligonoen ikus-kalitatea hobetzea, zalantzarik gabe bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko alderdi positiboa da eta hein berean Eremu Funtzionaleko bisitarien aurrean hobetu egingo du "aurkezpen aurpegia".

Hirigintzako hazkundeak gorde egin beharko luke egungo kokalekuen eredua, orekatua, eta garatuko den tokiko paisaian integratu; berebat, baliorik handieneko guneak eta ikuspegiak babestu eta han-hemengo gune eta urbanizazio sakabanatuak saihestu beharko lituzke. Logika osoz, nahiz ez den honako Paisaiaren Katalogo honen helburua, hirigintzako hazkundeak ez lituzke balio handiko diren beste baliabide batzuk arriskuan jarri behar, ekologikoak edo nekazaritzakoak, esate batera, iraunkortasunerako eta tradiziozko ekonomiarekin loturiko jarduerei eusteko beharrezkoak direnak eta herritarrek oso balioztatzen dituzten paisaia-sortzaile direnak. Erronka nagusia hiri-kokalekuen hedapen neurrigabea saihestea izango da (etxetarakoak, industrialak...) eta hiri jarraituak sortzea, gainjarritako erabileren muga lausoen bitartez egituratuak eta nahaspilan; eta kontrara, muga horiek indartzea izango du helburu, auzo, herri edo herrixkak nortasunez janztea. Honela, bada, beharrezkoa da hiri/landa interfaseko hiri planeamenduetan arreta ezartzea, bizi dituen presioen ondorioz kalteberatasun handiko lurralde espazioa den aldetik. Maiz sarritan hobegarriak diren inpaktu negatiboak metatzen dituen lurraldeko guneetako bat izan ohi da, herrigune inguruetan kokatuak eta honenbestez, ikusgarritasun handi edo oso handikoak.

Paisaia zaindu eta hobetzeko, batik bat finkatutako hiri-sailena, baina baita garapen berriak izango dituzten lurzoruena, hirigintzako kudeaketa agirietan paisaiaren balioak jasotzea ezinbestekoa da, udalerrietako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean esate batera, Lurralde Plan Partzialean eta dagozkion erabakietan adierazitakoa jasoaz. Lurralde Plan Partzialaren etxebizitzetarako parkearen hirigintzako plangintzarako irizpide orokorren arabera, etxebizitzetarako parkearen hazkundean lehentasuna emango zaio barruko antolaketari eta jada existitzen diren hiri-sareen aprobetxamendu hobea egiteari, hiri-erabileren barreiatzea eta egoitza-esparru berrien ezarpena kontrolpean hartuz. Honenbestez, lehentasuna izango du erabiltzen ez diren eraikinak zaharberritzeak, ekipamenduak edo etxebizitza berriak sortzeko, lurzoru berriak okupatu gabe. Nolanahi den ere, Lurralde Plan Partzialaren 2031ko etorkizunean, hiri

garapenak aurreikusi dira epe ertainera: bereziki, Donostialdeko erdi aldean (Donostia, Astigarraga eta Hernani) 15.000 etxebizitza berri eraikitzea aurreikusi da, nahiz udalerri guztiek duten hazkuntzarako aurreikuspena.

**PKH hiri kokalekuei dagokienez. (U)**

***U.C.1*** *Paisaia-balio handiko hiriguneak mantentzea.*

***U.C.2*** *Landa guneak mantentzea.*

***U.C.3*** *Hiri kokalekuetan dagoen landare-paisaia mantentzea.*

***U.M.1*** *Ikus-kalitate txikiko etxetarako kokalekuak hobetzea.*

***U.M.2*** *Hiri inguruko espazioen itxura hobetzea.*

***U.M.3*** *Hiriguneetarako sarbideen itxura hobetzea.*

***U.M.4*** *Hutsik dagoen lurzoru urbanizatua hobetzea.*

***U.M.5*** *Industria poligonoen itxura hobetzea.*

## 2.3 GARRAIO, ENERGIA ETA TELEKOMUNIKAZIOEN AZPIEGITURAK

Erronka nagusia paisaian integratutako garraio, energia eta telekomunikazio sarea izatea da, eraginkorra, egun dagoena hobetuko duena eta egiazko beharrizanen arabera haziko dena. Azpiegitura hauek maiz ikus-inpaktu negatiboa sortzen dute, sarritan gutxienekora murriztea zail dena. Jada abian dauden haien ikus-integrazioa lortzea erdietsi ezin daitekeen erronka da, teknikoki batzuetan eta beste batzuetan, berriz, sozialki, horrek lekarkeen kostu handia aintzat hartuta. Alabaina, zenbait errepide tarte, trenbide, portu, trenbide eremu edo komunikabide-lotuneren ikuspegia hobetzeak Eremu Funtzionalaren multzoan paisaiaren hobekuntza lekarke, behatzaile kopuru handiaren aurrean izango lukeen ikus-eraginaren ondorioz. Honela, bada, Paisaia-unitate bakoitzean jardun-eremuak identifikatzen dira irisgarritasun bisuala aztertu ondoren (behatze-guneetan ikus-eremua, egunerokoak nahiz “kontenplaziozkoak”), entitatea eta azpiegitura mota (ikus-inpaktuaren handitasuna eta indarra), gune edo paisaia aldetik gailentzen diren elementuekiko gertuko kokalekua, eta hori txikiagotzea lortzeko “egiazko” aukera. Gainera, modu honetan integrazioak adiera bikoitza izango luke: Batetik. azpiegiturak eurak ostendu edo kamuflatzea. Bestetik, paisaia behatzen duen behatzaile kopuru handi baten ikusbitartean kokaturiko paisaia-inpaktu negatiboen ikuskera murriztea.

Honen guztiaren aurrean, esan beharra dago etorkizuneko garapen planeamenduek paisaiaren integrazioa jasotzen dutela araututako ingurumenaren ebaluazioaren baitan. Ildo berari jarraiki, Pasaiako Portua eta Irungo trenbide eremua bezalako guneetan Lurralde Plan Partzialak berak etorkizuneko garapenerako Zehaztapenak eta irizpideak mahairatzen ditu, Plan berezi partikularrak garatuz, non integrazioa eta ikus-eremuaren hobekuntza aintzat hartuko diren. Hala eta guztiz ere, Katalogoaren ikuspegitik hainbat ekintza osagarri gomendatu daitezke paisaia baliabidearen mesedetan.

Azkenik esan behar da azpiegitura guztiek ez dutela inpaktu negatiboa eragiten paisaian. Kontrara. Barru aldeko mendiak, zenbait ubide eta harlanduz eraikitako babesgune, kultura-ondarearen atal diren aldetik zaindu eta babestu beharreko elementuak dira.

**PKH garraio, energia eta telekomunikazioen azpiegiturei dagokienez. (I)**

***I.M.1*** *Garraio azpiegiturak hobetzea (elementuak eta ikuspegiak).*

***I.M.2*** *Gordailuak eta energia-garraioen eta telekomunikazioen azpiegiturak paisaian integratzea.*

***I.M.3*** *Bigarren mailako errepideen ikuspegia hobetzea.*

## 2.4 ERAUZKETA-LANAK, ZABORTEGIAK ETA HONDAKINEN TRATAMENDU-PLANTAK

Erauzketa-lanak, zabortegiak eta hondakinen tratamendu eta arazketa-planten kokagunea da paisaian eragin handien izan ohi duen sektoreetako bat, lurraldean ekar dezakeen eraldaketa erabatekoaren ondorioz. Honela, bada, meatze ustiaketen kopuru eta egoeraren gaineko kontrola, instalazioen kokalekua eta berroneratze-planak betetzea, egokitzea eta eraginkorrak izatea bermatuko duen kontrol zorrotzak izugarrizko garrantzia du jarduera ekonomiko honen eta ingurumenaren (orokorrean) eta paisaiaren (zehazki) arteko ezinbesteko oreka eskuratu nahi bada.

Zabortegi eta hondakindegiek, oro har, ikus-inpaktu oso negatiboak eragiten dituzte, paisaiaren kalitatea murrizten dutenak. Zigilatzen denean paisaiaren integrazio neurriak aintzat hartzea nahitaezkoa den arren, gizartearen nahia da behin planta abian denean neurri zuzentzaileak aplikatzea eta paisaia are indar handiagoaz kontutan izatea eraispen-planean.

Azpimarratu beharrean gara atari zabaleko meategi zaharren, edo zabortegi zaharren –bereziki bizigabeen- paisaiaren berroneratzea helburu desiragarria den arren, zenbait kasutan zailtasun tekniko handiko egitekoa dela, kostu eratorri oso handikoa, edo are, ezinezkoa. Arrazoi hau tarte, ez da komeni helburu hau izaera hau duten identifikaturiko elementu guztietara hedatzea, aldez aurretik balizko hobekuntza edo berroneratzearen bideragarritasun tekniko edo sozioekonomikoa (kostua/gizarte onura ratioa) balioetsiko duen azterlanik egin gabe. Paisaiaren berroneratzea ezinezkoa dela ondorioztatzen den eremu degradatu horiei dagokienez, erabileraren aldaketa baten bidez paisaia berri bat sortzea planteatu daiteke.

**PKH erauzketa-lanei, zabortegiei eta hondakinen tratamendu-plantei dagokienez. (E).**

***E.M.1*** *Harrobi eta zabortegien ikuspegia hobetzea.*

***E.M.2*** *Bazter utzitako harrobien ikuspegia hobetzea.*

## 2.5 ABELTZAINTZA ETA NEKAZARITZAKO ERABILERAK

Ezin uler daiteke Eremu Funtzionaleko paisaia larre, belardi eta zurezkoen laborantzak (sagasti, mahasti...) osatzen duten mosaikorik gabe, basoekin batean. Ezta baserri, uztartzen dituzten bide-sare, borda, hesi eta aiurri kultural eta etnografikoa duten beste elementu askorik gabe, lurraldearen nortasun direnak.

Horiek zaintzea ez da soilik paisaiaren kalitateari egiten dioten ekarpenagatik. Ohiko abeltzaintzari lotzen zaizkion larreek animalientzako inguruen aniztasuna eragiten dute eta suteetarako arriskua arintzen. Giza zibilizazioaren historiaren atal dira, lurralde maiz etsaietan iraunarazteko borrokaren atal, eta horien ingurumen eta gizarte mailako garrantzia izugarria da. Elementu hauetako asko desagertzeko bidean daude, azken hamarkadetan gertatzen ari den moduan, errentagarritasun ekonomikoaren ondorioz ezarian-ezarian bertan behera uzten ari direlako.

Etorkizuneko erronka, gizartean zabal hedatutako nahia, “landa” paisaia mantentzekoa da, emankorra baina inpaktu negatiboetatik salbu, tradiziozko egitura eta elementuak zaindu eta indartuko dituena. Ordea, helburu hori lortu nahi izanez gero, beharrezkoa izango da nekazaritza estensiboa paisaiaren atal bizi modura mantentzea, landa ingurumeneko biztanleen bizi-maila hobetzen lagunduaz, horiek baitira landa ingurua gordetzeko ezinbesteko aktore.

Horretarako, beraz, giltzarri izango da Nekazaritza, Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailen arteko komunikazioa, nekazal-ingurumeneko laguntza eta neurriak modu koordinatuan sustatuko dituztenak, Landa-garapeneko Programa baten bitartez kudeatuak.

Lurralde Plan Partzialak berak “Nekazaritza eta abeltzaintzako Eremu Estrategikoak” izeneko esparruak bereizten ditu ingurune fisikoaren lurralde antolamenduaren barruan; xehetasunezko antolamendurako proposamena da, izaera osagarrikoa eta zonatan egindako banaketa orokorrari gainjartzen zaio; herriz kanpoko Landa Parkeak, hiri inguruko Landa Parkeak eta Nekazaritza eta abeltzaintzako Eremu Estrategikoak sortzea du helburu, landa paisaia zaintzeko jomuga erdiesten lagunduko duena. Inguru hauen helburua da batetik, eskualdeko etorkizuneko konurbazioaren baitan

udalaz gaindiko eskalan berdeguneak bermatzea da eta bestetik, inguru hauek inguruko landa eremuan hiriaren atsedenlekurako hedapen-gune lehenetsi modura arautzea, izaera ludikoa duten jarduera eta instalazioak landa-ingurunearen zaintzarekin bateragarri eginez. Hori horrela finkatzearen helburua da paisaia zaintzea eta ingurune fisikoa babestea, baita inguruko medioarekin bateragarri diren lehen sektoreko jardueren biziraupena eta indartzea ere. Katalogo honen testuinguruan kartografian zehaztu dira, bakoitzaren zaintza maila eta elementu berezien presentzia aintzat hartuta; gainera, ikus-irisgarritasun handia duten edo paisaia-inguru bikainean kokatuak dauden balioztatu da.

**PKH abeltzaintzako eta nekazaritzako erabilerei dagokienez, (A).**

***A.C.1*** *Paisaian garrantzizkoa den nekazaritza eta abeltzaintzako paisaia zaintzea.*

***A.M.1*** *Nekazaritza eta abeltzaintzako paisaia hobetzea (azpiegitura handiak).*

## 2.6 BASO ERABILERAK

Eremu Funtzionaleko mendien atal handi baten landare-estalkia guztiz eraldatu du hazkunde azkarreko zuhaitz erako kultiboaren presentziak, batik bat Monterry izeneko pinuak ((*Pinus radiata o P. insignis*), basa-paisaiaren protagonista erabatekoa denak. Sail hauek soil-soilik industria egurrez hornitzea zuzenduak daude eta ez dira zentzu biologikoan hartuta, ez baso ezta hala hautematen ere. Horien gainean gauzatutako kudeaketaren ondorioz, ekologia eta paisaia aldetik inpaktu ugari erakusten dute, hala nola, erabateko mozketen ondoriozko eremu zabal agerikoak, landaketa ertzetako lerro zuzenak, mendi magaletan ustiategietarako irispide-pista zabalen trazadura, birlandaketarako mendi hegalak aldapan lubakituak.

Gizarteak jakin badaki mendiek, noren jabetzako diren alde batera, lehengai-iturri izateaz gainera, hainbat ingurumen funtzio betetzen dituztela: lurzorua eta uraren zikloa babestekoa, atmosferako karbonoa finkatzekoa, aniztasun biologikoa gordetzekoa eta paisaia mantentzekoa; gainera, erabilera publiko eta aisialdiko balioa duten erabilerak eskaintzen dituzte. Aurreko paragrafoan jasotako ondasun guztien artean, lehengai-iturri izateko funtzioa soilik dagokie ondasun pribatuei, jabeak aprobetxatzen dituenak. Gainerako guztiak ondasun publikoak dira eta jabeek ez dute horien gainean jabetzarik gauzatzen (beste zeinahi hiritarrek bezala aprobetxatzen dituzte) eta kanpo-efektuak dira (Michel Rodríguez, M.2006). Parte-hartzeko tresna ugariek jasota utzi dute ekoizpeneko basa-paisaiaren ikuspegia hobetzeko gizarteak duen nahia, batik bat ikus-irisgarritasun handiko eremuetan; baita, zenbait gunetan jatorrizko formazioak berreskuratzeko gura ere, inguru bikainetatik gertuko eremuetan daudenak, gainera. Nahiz ikuspegiaren hobetzea poliki-poliki txerta daitekeen sektorean, pagadi edo hariztien berroneratzeko lana nekezagoa da, mendien jabetza pribatua baita. Hala eta guztiz ere, mendi publikoetan basoberritzeko ahalegina egin da eta ikusi da bideragarria dela; honenbestez, hori lortzera zuzendutako politikak txertatzen saiatzea merezi du.

**PKH basogintza erabilerei dagokienez. (F).**

***F.M.1*** *Ikusgarritasun handiko baso-landaketak hobetzea.*

***F.R.1*** *Formazio autoktonoak berreskuratzea.*

## 2.7 KULTURA-ONDAREA

Paisaia ezin uler daiteke bertan bizi izan diren herrietatik oinordetzan jasotako kultura-ondarea hauteman gabe. Eraikitako paisaiak osatzen dituzten elementuak: herriak, gazteluak, dorreak, harresiak, elizak, zubiak eta baserriak, horiek lotzen zituzten errepide eta bide naturalak osatzen duten elementu sorta babestu eta gordetzea ezinbestekoa da. Aurre egin beharreko lehenengo erronka da tradiziozko paisaia ezaugarritzen duten arkitekturako elementuen dimentsio sozial, historiko, espiritual eta sinbolikoarekiko sentsibilizazio eta ezagutza handiagoa lortzea. Gizarteak berariaz eskatu ezean, paisaia-intereseko elementu eta ondare-kokapenak zaindu, berreskuratu edo ikusgarritasunean

hobetzea eta are, balioa ematea, nekez lor daitekeen egitekoa izango da; horretarako, ezinbestekoa izango da administrazio edo erakunde eskumendunen artean, edo kultura-ondarea zaintzeko lanetan dihardutenen artean lanak koordinatzea eta sinergiak finkatzea.

Oro har, Eremu Funtzionaleko ondarea inbentarioan edo katalogoetan jasoa dago, erlijio, militar, historiaurre edo arkitekturako ondarearen elementu gisara. Beste batzuk, aldiz, oraindik inbentarioan jasotzeke daude edo abiarazitako azterlanak osatzeko dituzte. Eta sail honetan ditugu etnografia (baserriak, esate batera) edo industria ondareko elementuak. Badira ildo horretan abiarazitako ekimenak, horietako batzuk UNESCOk babestutakoak, azken hamarkadetan industria-ondarea zaintzearen alde egin dutenak eta industrializazioko ondasunak kultura-ondarearen ataltzat hartuak izatea lortu dutenak; ordea, beharrezkoa izango da bide honetan aurrera egitea.

Paisaian garrantzizkoak diren ondareko elementu gehienak Kultura Intereseko Ondasun modura babestuak daude, edo babeste-prozesuan, industria- edo etnografia-ondareko zenbait elementuren moduan. Alabaina, paisaia aldetik zaintzeak elementua babeste hutsa baino areagoko ekintza eskatu beharko luke. Dagoen tokiko ikus-eremua, gaztelu batetik dauden berehalako ikuspegiak, herri baten itsasertzaren osotasunezko ikuspegia edo bide historikoetatik hautematen den paisaia, Done Jakue bidea esate batera, babesteko orduan aintzat hartu beharreko ezaugarriak dira, jatorrizko izaera gorde nahiko bada.

Honezaz guztiaz gainera, babesteaz gain, zaharberritze neurriak ere baliatu behar izaten dira, edo hobekuntza neurriak berroneratzea ezinezkoa denean eta ekintza horiek nekez gauza daitezke jabetza pribatua denean. Erabilera berriak edo aukera berriak aurkitzeak auto-kudeaketarako bide emango du, laguntza publikoen beharrik izan gabe.

Narriatutako kultura-ondareak paisaia aldetik ahalmen handiak eskaintzen ditu. Izan ere, paisaian duen presentziak balioa areagotzen dio eta kokatzen den paisaiako Unitate ugariren aiurria areagotzen. Kasu honetan, eraikitako osagai eta elementuak diren aldetik, errazagoa da zaharberritze lanen ondoren izango duten azken itxura zehaztea; gainera, zaharberritze lanetarako bideragarritasun sozioekonomiko handiagoa izan ohi dute.

Une honetan Kultura-ondarearen Lurralde Plan Sektoriala izapidean da eta honenbestez, onartzen denenean Katalogo hau bertako ondorioetara bilduko da. Espazio hauek hautatzeko alderdi sozioekonomikoen balorazio nasaia egin behar da, ad hoc parte-hartze publikoa besarkatuko duena.

Paisaiaren ikuspegitik ikusgarritasun handia duten ondareko elementuak zaharberritzea gomendatzen da edo paisaiarekin lotura estua dutenak; ikuspuntu honetatik zail da lehentasunak finkatzea, izan ere elementu mota hau (defentsarakoak edo erlijiokoak, esaterako) historikoki kokagune gailen eta ikusgarritasun handikoetan kokatu dira. Bereziki, proposatu diren paisaia-ibilbide nagusien inguruan kokatzen diren kultura-elementuak zaharberritzea gomendatzen da (baselizak, e.a.); baita beste batzuk ere, Done Jakue Bidea azpimarratzekoa izanik.

Aztergai dugun esparru honetan jada gauzatu diren ekintzetako batzuk dira Plazaolako trenbidearen zaharberritze-lana eta bide berde bihurtzekoa eta Arditurriko meategi zaharretan bisitarien gunea sortzea. Hauek guztiak gaur egun bisitariak erakartzeko guneak dira. Eremu Funtzionalean ondare militarraren zaharberritze-lan esanguratsuak ere gauzatu dira, San Marko gotorlekuan egindakoak, La Mota gazteluan edo Beloagako gaztelukoak esate baterako.

**PKH kultura-ondareari dagokionez. (P).**

***P.C.1*** *Ondarea zaindu eta mantentzea: Militarra, erlijiosoa, industriala, zibila, etnografikoa eta bide historikoak, paisaia egituratzen duten ardatz diren aldetik.*

***P.M.1*** *Paisaia aldetik garrantzia duen Kultura-ondarea hobetu, zaharberritu eta balioa ematea.*

## 2.8 PAISAIA NATURALAK

Donostialdeko Eremu Funtzionalak paisaia natural sorta bikaina du, bere izaera ez galtzeko zaintzea ezinbesteko dena: baliabide fisiografikoak (mendiak, lerrokadurak eta muinoak), basoa atlantikoak, mendi-labarrak, haitzak, padurak, errekastoak... Kokaleku eta elementu hauetako zenbait ingurunea babesteko diren zenbait figuraren pean daude (Natura-parkea, Kontserbazio Bereziko Eremua e.a.) eta horiek kudeatzeko agiriak aztertuta (“Kontserbazio Bereziko

Eremuak kudeatzeko neurriei buruzko agiria") paisaiaren zaintza bermatuko duten neurriak jasotzen dituztela ikus daiteke. Berariaz aipatzen ez duten arren, bertan proposatzen diren ingurumen eta ekologiako balioen zaintzak natura-gune hauen paisaia zaintzea ere besarkatuko dut.

Hala eta guztiz ere, paisaia aldetik balio handiko natura-guneek babes-molde berariazkorik izan gabe jarraitzen dute. Baliabide fisiografiko eta geologikoen artean, natura-gune babestuetan kokatzen diren gailur nagusienez gain, bada mendi eta muino sail bat Paisaia Unitateko atzealde eszenikoa osatzen dutenak; horiek zenbaitetan paisaiaren baliabide ukaezinekoa dira, bertako biztanleekiko lotura historiko eta etnografiko estuaren ondorioz. Horien artean ditugu San Marko, Santiagomendi edo Igeldo mendiak. Hein berean, babestutako eremuez kanpo Paisaia Unitateetan bizi diren berezko landaretzadun zuhaiztiek, ubideetan, paisaia-balio handiko mendi-bizkarretan, ibarretan... kokatzen direnek, paisaiaren balioa areagotzen dute, bereziki erabilera artifizialez gehiegi betetako espazioetan, *Korridoreak* esate batera, non hiri eta industria jarraituak eteten dituzten. Gainera, Ibiltoki, atsedenleku eta aisialdirako guneak dira, korridore ekologiko funtzio oso nabarmena betetzen dutela eta dispertsio guneen artean "steping stones" modura funtzionatzen dutenak. Baliabide hibridoei bagagozkie azpimarratu behar dugu Natura 2000 Sareen baitan babestutakoez gain, ur-lamina gehienek zaintza dutela Uraren Euskal Agentziak babestutako espazio diren aldetik, nahiz babes horrek ez duen haien paisaia-ezaugarriak zaintzea bere baitan hartzen.

Donostialdeko Eremu Funtzionalean paisaia-balioei eusteko beharrezkoa da lurralde eta hirigintzako planeamenduak erabilerak arautu eta mugatzea, ingurumeneko plangintza-baliabideetan aurreikusitakoa kaltetu gabe eta halakoetan, horietan egiten diren erabilera eta jardueren araudian erabakitakoari meneratuko zaio. Lurralde Plan Partzialak, abeltzaintza eta nekazaritzako erabilerei dagozkien printzipioetan ikusi den moduan, Hiri inguruko Parkeen zonifikazioa modu honetan ulertzen du: *"eskualde mailako espazio berdeak, hiri inguruan kokatuak eta aisialdi eta naturarekiko lotura jardueretara emanak"* eta honenbestez, paisaia naturalen babesa ere besarkatzen du. Ildo honi jarraikiz, ingurune naturala zaintzeko aurreikusten ditu *"paisaia aldetik esanguratsuak diren erliebeak zaindu eta hobetzeko jarduerak. Erliebe ertaineko mendi-bizkarrak natura-espazio berde modura indartzea".*

Erronka natura-paisaiak zaintzea da: ingurumenaren babesa paisaiari dagozkion alderdiekin osatu edo zabaldu, ekonomikoki iraunkorrak diren jarduerekin modu koordinatuan, jada finkatuta dauden erabileren garapena iraunkortasun irizpide bidez gauzatuko dela bermatuz, paisaia horien pertzepzioaren zaintzarekin bateragarri izango direnak. Bestetik, paisaia balioak zaintzeko, beharrezkoa izango da, logika osoz, horien euskarri diren bertako ekosistemak berreskuratu, zaindu eta hobetzea. Erronka honek, zeinarekin Lurralde Plan Partziala bat datorren, ingurumen naturalaren zaintza horrela ulertzen du: *"Ekintza estrategiko eta esku-hartze irizpideen bitartez, etorkizuneko garapenak natura-baliabideen iraunkortasunarekin bateragarri egiteko".*

Gizarteak gehien eskatzen duen nahietako bat da zenbait natura-paisaia berreskuratzea, hobetu edo berroneratuz, duten ingurumen-balioa alde batera utzita. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Plan Partzialak, Kostaldeko Lurralde Plan Sektorialak edo Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak basoak, ur-bazterrak eta bestelako formazio naturalak berreskuratzeko neurriak eta ekintzak aurreikusten dituzte. Gainera, ingurumeneko behar handia da, gizarteak ozen galdatzen duen eskakizuna. Alabaina, maiz sarritan zail da jatorrizko formazioak berreskuratzea, ezen desagerrarazi duen kausak bere horretan dirauen bitartean, dela inpaktua direla egungo erabilerak, berroneratzea ez da bideragarria. Halako egoeretan helburua ikus- eta ingurumen-hobekuntza lortzea litzateke, bere onera ekarri nahi izan gabe. Aisialdi eta mugikortasunerako espazio garbi eta zainduen demanda dago eta eskakizun horrek zenbait espazio gizarteak erabiltzeko egokitu eta ingurunea hobetzeko baliatzera garamatza. Lurralde Plan Partzialean bereizi diren Ibaiko Hiri Korridoreen kasua da honakoa, non dagozkion Ibaien Antolamendu Integratuko Plan Bereziak abiaraztea aurreikusia dagoen. Lurralde Plan Partzialean proposaturiko parkeen kasuan bezalatsu, katalogo honen testuinguruan kartografian zehaztu dira, bakoitzaren zaintza maila eta elementu berezien presentzia aintzat hartuta; gainera, ikus-irisgarritasun handia duten edo paisaia-inguru bikainean kokatuak dauden balioztatu da.

Amaitzeko, ikuspegia hobetzeari dagokionez, ingurunea berreskuratzeko hainbat neurri hartu direla esan behar da, soil-soilik ekologia babesteko irizpideei jarraiki hartu badira ere. Jaizkibel da horietako bat. Hemen erronka prozesu ebolutiboetan aurrera egitea da, datozen urteetan jatorrizko formazioetarako hurbilpentxoa egiteko, egun erakusten duten paisaia hobetuz. Ildo honi jarraikiz, suteen aurkako baso-tratamenduetarako bestelako aukerak aurkitu behar dira, izan ere guztiz beharrezko dira, baina balio handiko ingurunean paisaiaren kalitatea murritzarazten dute.

**PKH paisaia naturalei dagokienez. (N).**

***N.C.1.*** *Baliabide fisiografikoak mantentzea.*

***N.C.2.*** *Bertako formazio zuhaizkarak mantentzea.*

***N.C.3.*** *Ur-lamina nagusienen eta atxikitako landaretzaren paisaia mantentzea.*

***N.C.4.*** *Kostaldeko paisaia bikainak mantentzea.*

***N.C.5.*** *Zuhaitz apartekoak mantentzea.*

***N. R.1*** *Ur-bazter tarteak berroneratu eta hobetzea.*

# 3 EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

## 3.1 PKH OROKORRETARAKO EKINTZAK

| ***G.1. Paisaiaren baliabideari indar handiagoa aitortu, etorkizuneko garapen-guneak aurkitzeko orduan aukerak aztertzen direnean.*** |
|---|
| EKINTZAK |
| • Etorkizuneko garapen-guneak eta paisaian negatiboki gehiago eragin dezaketen jarduerak aurkitzeko orduan aukerak aztertzen direnean paisaiaren baliabidea hasierako fasetik kontuan izatea aholkatzen da: tamaina handiko garapenak, bai industria nola hirugarren sektorekoak, azpiegiturak edo erauzketa-lanak, zabortegi eta hondakinen tratamendu-plantak. Azterlanaren hasieratik kontuan izan, paisaiaren kalitate txikieneko guneetan edo paisaia-balioen eta beste lurralde baliabideen galera txikiena sortzeko moduan planteatu daitezen.<br>• Urbanizatze- edo eraikitze-lanek hirigune edo paraje ikusgarrietatik dauden perspektibei eragin diezaieten ekiditea aholkatzen da, paisaian integratzen saiatuz, ingunearekin harmonian. Aholku honek barne hartzen ditu hiri-, industria-logistika- edo zerbitzu-garapenetatik, baita atxikitako azpiegituretatik (hornidura sareak, seinaletika, e.a.) eratorritako ikus-inpaktu sinergikoak..<br>• Ahal den neurrian populazio-guneen izaera konpaktua mantendu. Guneen mugak garbi zehaztu, guneen hiritar espazioaren hedapen kontrolagabea, erabilera zehaztugabe, gainjarri eta desordenatua galeraziz.<br>• Garapen berrietan, erakitze ereduen neurrigabeko errepikapena mugatzea aholkatzen da, eraikingintza-tipologia eta arkitektura aniztasuna sustatuz, eredu tradizionalak errespetatuz.<br>• Hiriguneetako inguruetan etorkizuneko garapen-gune paisaia-integrazioa bermatu behar da. Zentzu honetan, landa-hiri transizioko guneen ertzetan kokatzen diren urbanizazio berrien garapenean diseinu tradizionalagoak sustatzea aholkatzen da. Espazio hauetan bide eta biribilguneen zabaleroari dagokionez adostutako eskalak finkatzea aholkatzen da, bertan dauden elementu natural eta ondarezkoei balioa emanez. Landa-hiri transizioko guneen integrazioaren ildoari jarraituz, landa-eremuetan eraikitze-arau zehatzagoak finkatzea aholkatzen da, bolumetria, xedapen eta bukaerei dagokienez, landa giroan integratuko diren tipologiekin bat.<br>• Etorkizuneko hirigintza ekintzetan Paisaiaren Integrazio Azterketak txertatzea aholkatzen da, EAEko lurraldearen antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko 90/2014 dekretuan aurrikusten den baliabide gisa. Azken emaitzarekin fidelak izango diren infografía eta simulazioak txertatzea aholkatzen da, eta baita Paisaiaren Katalogoaren emaitzen ondorioekin ebaluaketa eta kontrastea ahalbidetuko duten beharrezko ikuspen-analisiak re: balioak, enklabe eta elementuen gaineko afekzioak, ikuspen-irispidea.<br>• Hala Antolamendu Plan Orokorren berrikuspenak nola haien LPPen zehaztapenetarako egokitzeak, aukerak proposatzeko fasetik bertatik txertatu behar dituzte zehaztapen hauetatik eratortzen diren irizpide eta helburuak. |
| ADIERAZLEAK |
| • Eremu funtzionaleko udalerrietan onartutako paisaiarekin zerikusia duten ordenantza kopurua. |
| KOKALEKUA |
| • Lasarte-Oria, Zubieta Goialde eta Aritzeta korridoreko izaera estrategikoko eremua.<br>• Urumea korridoreko izaera estrategikoko eremua.<br>• Lezo-Gaintxurizketa korridoreko izaera estrategikoko eremua.<br>• Txingudiko izaera estrategikoko eremua.<br>• Pasaiako badiako izaera estrategikoko eremua. |

| ***G.2. Hirigintza-arauetan paisaia modu eraginkorragoan txertatu*** |
|---|
| EKINTZAK |

| ***G.2. Hirigintza-arauetan paisaia modu eraginkorragoan txertatu*** |
| --- |
| • Garapen berriko eremuetako eraikin berrien diseinuan, kokatu behar duten espazioarekin bat datozen bolumetria, osagai eta koloredun eraikingintza-tipologiak eta egitura morfologikoa sustatu. Era honetara, haien intrusioak ez du osotasunean paisaia-balioen txikitzea suposatuko eta, kontrara, balioa handituko dio. Zentzu honetan, udalerri bakoitzak arautegi argi bat eta gomendio zehatzak finkatzea aholkatzen da, hirigintza jarduera berrien lanketa eta paisaia-ebaluaketa erraztuko dutenak.<br>• Industri-garapenen kasu zehatzean, aholkatzen da:<br>▪ Bizitegi eremuekin bat etorriko diren hirigintza- eta estetika-kalitateko estandarrak erabiliz antolatu poligonoak (berdegune, zoladura, argiztapena, e.a.en diseinuen irizpideei dagokionez).<br>▪ Utzitako lursailak poligonoen perimetrora eraman, ahal den neurrian, landaretza naturaleko ikus-pantailak sortzeko asmoz.<br>▪ Kokatzen diren paisaiarekin bat etorriko diren beste integrazio neurri batzuk ezarri: integrazio topografikoa (lurketak, kabaloiak), landare gabeko pantailak, e.a.<br>▪ Industria- edo logistika-garapen handietan, berdegune bidez zatikatzea aholkatzen da, eta lursailaren topografiara egokitzea, lurketak minimizatuz.<br>▪ Industri-partzelen seinaletika eta publizitate-kartelak arautu eta harmonizatu, polígono bakoitzean estetika komun bat mantenduz.<br>• Landa-gune eta bizitegi sakabanatuen kasuan, aholkatzen da:<br>▪ Argiztatze zuzena ordezkatu, fatxadak erreflektore gisa erabiliz, intentsitate baxuz, argi-paldoak eta gaueko zerua ikustea galerazten duen argi-kutsadura ekidinez.<br>▪ Euren inguruko eraikinen paisaia-, kultura- eta ingurumen-balioekin integrazioa hobetzen lagunduko duten eraikuntza-elementu eta osagaien ordezkatzea eta egokitzea helburu duten laguntzak estimulatu.<br>▪ Planeamenduan eraikitze-baldintzak definitu, ikuspuntu bolumetriko, tipologiko eta dentsitatezkotik landa-gune bakoitzeko ezaugarri morfologikoetan integraturik gera daitezen, eta eraikinen inplantazio moduak arautu, izaera isolatu, lerrokatu edo mehelin artekoa izan behar duten egokituz.<br>▪ Landa-gune eta bizitegi sakabanatuen elektrizitate-, hornidura- eta saneamendu-zerbitzuak integratu, euren paisaia-inpaktua ekidinez, eta ahal dela, eraikinetan lurperatu eta integratuz.<br>• Udal ordenantzetan paisaia-araubide neurriak txertatzea gomendatzen da, honakoei dagokienez:<br>▪ Contaminación lumínica y sonora.<br>▪ Regulación de las señales publicitarias.<br>▪ Limitación de inclusión de elementos disonantes y heterogéneos en fachadas (cerramientos, toldos, cubiertas).<br>• Hiri-eszenan Katalogo honetan identifikatutako paisaiaren osagai eta elementu bikainak sartzea gomendatzen da, Paisaiaren Unitate bakoitzari dagokion fitxa deskribatzailearekin lotutakoak, eta haiek eraikitzen diren espazioetatik ikuspegia izan dezaten aukera eman, gure hirietako moldaketa historikoan osagai eta elementu horiek izan duten eraginaren erreferentzia gal ez dadin.<br>• Udal baliabide gehiago jartzea gomendatzen da modu eraginkorragoan arautegia bete dadin. Udaletan paisaia gaietan formazioa duten pertsonak gehitu, nork bere planeamendua onartzeko gaitasuna duten haietan bereziki. |
| ADIERAZLEAK |
| • Lurzoru-araubidearen sailkapen eta erregulazio orokorraren bidez lurraldearen antolamenduan paisaiaren aldagaia beren-beregi kontuan hartzen duten hirigintza-planeamenduak.<br>• Eremu Funtzionalean idatzitako paisaiaren ekintza-planak. |

| ***G.3. Donostialdea eremu funtzionaleko paisaiaren balioa hedatu berau zaindu eta hobetzeko bide modura eta garapen ekonomikoaren eragile modura.*** |
| --- |
| EKINTZAK |
| • Komunikaziorako, balioa emateko eta gizartearen bere paisaiekiko sentsibilizaziorako baliabideak martxan jarri. Honetarako, administraritza desberdinen artean koordinatutako baliabideak aholkatzen dira, horietako batzuk garatuko diren Paisaiaren Ekintza-planak izan daitezkeelarik.<br>▪ Ibilbide eta begiratoki paisajistikoen gainean hainbat ibilbide tematiko diseinatu, espazio desberdinak |

| ***G.3. Donostialdea eremu funtzionaleko paisaiaren balioa hedatu berau zaindu eta hobetzeko bide modura eta garapen ekonomikoaren eragile modura.*** |
|---|

zeharkatuko dituztenak, interpretazio-panelen bidez prozesu nagusiak azalduz, batez ere mendeetako abeltzaintza, nekazaritza eta basogintzazko lanetatik eratorritakoak. Abeltzaintza, nekazaritza eta basogintzako ustiapenak erakutsiko dituzten eremu tematikoak sortu, arraza autoktono eta prozesu tradizionalen bidez (sagardogintza, gaztagintza…).

- Donostialdeko E.F.a zeharkatzen duten garraio-azpiegitura handien zortasun-eremuetan seinaletika horizontala gehitzeko ekinbideak sustatu, haren paisaiaren erreferentziak emango dituztenak, pasabidean diren bidaiariei irispidea erraztuz. Donostialdeko E.F.a zeharkatzen duten autobideetako Zerbitzu-guneekin batera landu, hauen erabiltzaile ugarien eskura Donostialdeko E.F.ren paisaien balioak hedatzeko eduki tematikoak jartze aldera.

- Donostialdeko E.F.aren paisaien Komunikazio-plan bat diseinatu eta sustatu, paisaiaren balioen hedapen eta honen zainketa eta hobekuntzarako sentsibilizaziorako ekimenak barne hartuko dituena, hiritarren, eskolen eta enpresaren esparruetan.

  - E.F.eko paisaien irakaspena txertatu eskola-agendetan. Ikasleen formazioarako paisaiari buruzko ekinbide zehatzak bultzatu. Eskolako XXI agendan proiektuaren jarraipena eskatu.
  - Paisaiaren ikasketa eta azterketaren sustaketa egin argazki lehiaketen, elkarteen, eta abarren bidez.
  - Donostialdeko E.F.ean hiritarren parte-hartze mekanismoak bultzatu, paisaiaren hobekuntzarako inplikazioa bilatuz. Paisaia gaietan ekinbide eta politika aktiboen sustapen eta hedapenarekin lotutako web guneak eta sare sozialak modu jarraian irekita mantendu.

- Donostialdeko E.F.eko kalitate altuko paisaia produktiboak bertatik eratorritako produktuekin lotu, balioa emate aldera. Sagardoaren eta gaztaran kasuan bereziki, ez ordea esklusiboki.
- Eremu Funtzionaleko paisaien bereizgarri eta irudi izango den beroiei lotutako marka-irudi bat sustatu, tokian tokiko proktuekin lotzeko ere balioko duena. Administrazio eta erakunde desberdinek ematen dituzten paisaia-kalitateko bereizgarriei erantsi irudi hau.
- Donostialdeko E.F.aren barneko paisaiei balioa eman, baita azpiegitura berdeari ere. Aktibo azpimarragarria eta biztanleriaren aisia eta gozamenerako erakarpen-fokua dira. Baita balizko bisitarientzako ere, gaur egun Donostian eta Hondarribian fokalizatzen den publikoa erakarri ahal izateko, eta ostalarien sektorearen eskaintzaren kalitatea handitzeko.
- Bai elkarte eta hiritarrei orokorrean, nola erakunde eta entitate publikoei lotutako lurraldearen zaintzarako mekanismoak sortu.

| ***G 4. Hiritarren eskura jarri paisaiarako irispidea eta gozatzeko aukera.*** |
|---|
| EKINTZAK |

- Ibilgailu motordunentzako bideez eta motorrik gabeko erabilerarako bide kirol-turistikoez (mendiko ibilbide luze, ibilbide labur, eta bazter utzitako bide eta komunikabide-azpiegitura zaharrak) osatutako ibilbide turistikoen sare bat sustatzea gomendatzen da.
- Paisaiarekin begirunez jokatuko duten begiratokiak sortu, hedapen paisajistiko zuzena egiteko moduan seinalizatu eta azalduko direnak, ikuspegi zabaleneko eremuetan.
- Bisitarien etorria antolatuko duten atsedenleku txikiak instalatu, paisaiaren hauskortasuna kontuan izanez, balio handieneko parajeak babeste aldera.
- Ikuspegi eszeniko onak dituzten gutxi erabilitako bigarren mailako errepideen mapa bat egitea proposatzen da.
- Ibilbide paisajistikoen sarean beste proiektatutako edo proiektatzen ari diren kirol edo aisiarako ibilbideak txertatu. Sare honen barnean bizikleta-ardatzak edo bidegorriak bultzatuko dira bereziki, bai hiri mailan nola hiriartekoan. Baita auzoko lurraldeekin konexioak ere, udalek eta Diputazioak zabaldutako foru-sareari jarraipena emango diotenak Gipuzkoako Bizikleta Bideen LPSen esparruan (2013ko ekainaren 10ean Foru-arau bidez behin-betiko onartua), eta LPParen barnean dagoena.

  - Trazaketa baldintza ahalik eta erakargarrienak emango zaizkie, paisaiaren interes handieneko espazioekin lotuta ahal den neurrian. Nolanahi ere, paisaiaren balio naturalekiko begirunea bermatuko dute. Indarrean dagoen planeamendu sektorialak finkatutako babeserako mugapenak kontuan izango dira, zeina baliabide naturalen babesarekiko eta inguru hidrikoaren kudeaketarekiko bereziki zorrotza den.
  - Hala lotutako azpiegituren diseinuen oinarria, nola bidexken bide-zoru, pasabide eta zubi, azpiegitura, mobiliario eta abarrak, paisaiaren integraziorako irizpideetan oinarrituta egon behar dute.
  - Materialen aukeraketa egiteko orduan, kokatzen diren paisaian kamuflatu daitezkeenak izan daitezela aholkatzen da.
  - Zeharkatuko duten inguruaren ikuspena hobetzea proposatzen da: ikus-pantaila bidezko azpiegituren kamuflaia,

***G 4. Hiritarren eskura jarri paisaiarako irispidea eta gozatzeko aukera.***

eraikuntzen ikuspen-hobekuntza, e.a., bide garrantzitsu hauek zeharkatzen duten inguruaren ikuspegi-hobekuntzan ekintzak zentratuz, hau da, trazaketa eta honen mugetan bertan. Horretarako, bide-zati hauei estuki lotutako paisaiaren hobetu daitezkeen puntu edo alderdiak zehaztuko dituzten azterketa espezifikoak egitea gomendagarria litzateke.

- Donejakue Bidetik hautematen diren lekuneen paisaia-integraziorako izaera bereziko azterketa bat egitea proposatzen da. Paisaia arreta bereziz behatuko duten ikusleen erakarpenerako elementua izateaz gain, euren konnotazio historiko, erlijioso, e.a.ekoa medio, paisaia ukiezin esaten zaion horren balioen sortzaile garrantzitsua da.
- Urtegi eta ibai-bideen erabilpen turistiko-aisialdiko-hezkuntzako-mugikortasunezkoa.
  - Ibaien eta Añarbeko urtegiaren zenbait zati euren aisialdiko erabilerarako egokitzea gomendatzen da, inguruarekin errespetuz eta modu jasangarrian, bereziki E.F.eko biztanleei zuzendua, baina baita kostaldearekiko dibertsifikazio elementu bezala ere. Honetarako, eremu funtzionaleko udalerrien eta ibai-arroako erakundearen (URA Agentzia) arteko planeamendua egin behar da, aisiarako espazio egokienak kokatu ahal izateko.
  - Eremu funtzionaleko biztanleek eta haren bisitariek erabili ohi dituzten eremuak kontuan izatea aholkatzen da, egokitu beharreko gune bezala aukeratzeko egokitasunaren azterketari begira.
  - Arrantzan egiteko postuetara irispideak hobetu, eta, interesatuak dauden elkarte eta udalerriekin batera, espezie autoktonoei, arrantza-tipologiei, e.a.ei buruzko formaziorako eta hedapenerako jardunaldiak bultzatu.
  - Baliabide hauen garapen turistiko-aisiarakoa erabilpen ez oldarkorrez eta uren, jabari publiko hidraulikoaren, arrantzaren, e.a.en gainean indarrean dauden legeen babesean egin behar da.

KOKALEKUA

Sustapenerako, hedapenerako eta balioa emateko ekintzak lehentasunez beharko dituzten bide eta ibilbideak honako hauek dira:

- Donejakue bidea (kostako ibilbidea).
- Donejakue bidea (barnealdeko ibilbidea).
- Oianlekuko harrespila. Altzibartik (Oiartzun).
- La Plata Faroa (Pasai San Pedrotik).
- Guadalupeko Amaren gotorlekua (Hondarribia).
- Erregearen Harriko begiratokia (Ulia mendia).
- Adarra mendia. Igoera Besabitik.
- Aldura Mendia. Igoera Listorretatik (Errenteria).
- Ametzagaña landa-parkea: zeharkatzen duten bidexkak.
- Plaiaundi: bidexka zirkularra.
- PR-Gi 1005 Errenteria-San Marko.
- Igoera Beloagako Gaztelura.
- Arditurriko bide berdea.
- Bidasoako bide berdea.
- Plazaolako bide berdea (Leitzaran, Gr-121)
- GR-121 (Gipuzkoari bira).
- Beste Ibilbide Luzeak (GR): GR-10, GR-34, GR 11, GR 121 E21, GR T2.
- Plazaola trenbidearen bide berdea. Bereziki proposatzen da bere ibilbidea Donostiaraino luzatzea (trenaren jatorrizko helmuga), honela berriz ere Nafarroatik itsasorainoko irtenbidea emango litzaiokelarik, trenbide zaharrean zehar.

***G.5. Paisaia baliabidearen gaineko zeharkako kontrolak eta azterketa areagotu***

EKINTZAK

- Administrazioen arteko, udalerriak batez ere, elkarlana sustatu, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia ere inplikatuz, Katalogoaren PKHak lortzeko eta Paisaiaren Ekintza-planak martxan jarri ahal izateko, alderdi komunak gehituko dituzten ordenantzak eta arautegia koordinatzeaz gainera.
- Eremu Funtzionalean mekanismoak bultzatzea aholkatzen da, paisaiaren kudeaketan adituak diren teknikariei hainbat langintzetan laguntzeko ahalmena emanez, hala nola:
  - Sektore ekonomiko desberdinetako enpresari, udal, teknikari, tokiko garapen-agente, naturagune babestuetako teknikari, eta abarri aholkularitza.

| ***G.5. Paisaia baliabidearen gaineko zeharkako kontrolak eta azterketa areagotu*** |
|---|
| ▪ Aldizkako kontrolak lurraldean gerta daitezkeen balizko aldaketak aurreikusi, detektatu eta aztertzeko asmoz: balione aldaketak suposatzen duten ikus-inpaktu negatibodun elementuen detekzioa, hauskortasun edo zaurgarritasunaren aldaketak, e.a.<br>▪ Paisaiaren babeserako hartutako neurrien eraginkortasunaren gaineko kontrolak, bai dokumentu honetan izendatutakoak, bai beste lurralde-dokumentuetan azaldutakoak ere.<br>• Donostialdeko E.F.eko paisaien zaintza eta balioa emateko azterlan eta proiektuak egitea.<br>▪ Formaziorako jarduerak diseinatu eta ezartzea.<br>▪ Ingurumen- eta paisaia-praktika egokien eskuliburuak idaztea.<br>▪ Interpretaziorako ekipamenduaren diseinua.<br>▪ Udalerrietan garatzen den Tokiko Agenda 21aren idazketa eta kudeaketan laguntza eta aholkularitza.<br>▪ Sare sozialetan Donostialdeko E.F.eko paisaien marka digitalaren irudia indartzen lagundu.<br>• Katalogoko datuetatik abiatuta, eremu funtzionalean paisaiaren alorrean “Zerbitzu Ekosistemikoen Kartografia” berrikusi, eta baliabide honen balioa estimatu. |
| ADIERAZLEAK |
| • Donostialdeko E.F.eko paisaiaren komunikazio eta hedapenerako prozesu eta kanpainen kopurua. |

## 3.2 HIRIGUNEAK

***U.C.1 Paisaia-balio handiko hiriguneak mantentzea***

EKINTZAK. Gune eta hiri-profil ikusgarrien eta ezaguterrezenaren gainean eragin, KIO (Kultura Intereseko Ondasun) gisa katalogatua egon ala ez.

- Eraikitako ondarearen berreskuratzea bultzatu, lurzoruaren okupazio berriak gauzatu aurretik, hiritar ingurunearen paisaia-itxura hobetzeko asmoz.
- Kasko historikoen itxura estetikoari dagokion hirigintza-arautegiaren betetzea sustatu eta kontrolatu.
- Babeserako proposatutako eremuetan, dagoeneko ez daukaten udalerrien aldetik, kokatu behar duten espazioarekin bat datozen bolumetria, kolore eta bukaerei dagokienez eraikingintza-tipologiak zehatzak ezartzea gomendatzen da, aurretik esistitzen duen hiri-paisaiarekin integrazio harmonikoa eskainiko duen egitura morfologiko baten barnean.
- Dagoneko ez dauzkaten kasko historikoetan, arau erregularizatzaile eta integratzaileen onarpena sustatzea gomendatzen da birgaitze-lanei dagokienez (fatxada, morfologia, materiale eta koloreak), lurzoru motak, hiri-altzariak, informazio-kartelak, publizitate-seinalizazioa, e.a. Arau hauek esistitzen direnean, bete daitezen kontrolatu

ADIERAZLEAK

- Eremu Funtzionalean onartu diren birgaitze integralerako Plan Bereziak.
- Udalerri bakoitzean onartu diren hiri-kaskoen birgaitze edo berroneratze eta bestelako aktuazioen proiektuak.

KOKALEKUA

- Belmonteko Erdi Aroko hiribildua Usurbilen.
- Erdi Aroko hiribildua Hernanin.
- Erdi Aroko hiribildua Errenterian.
- Erdi Aroko hiribildua Hondarribian.
- Marina Auzoa (Hondarribia).
- Pasai Donibane.
- Pasai San Pedro.
- Donostiako Antigua eta itsasertzeko fatxada.

***U.C.2 Landa guneak mantentzea***

EKINTZAK

- Ahal den neurrian, landa-paisaiarekin lotutako esparruetan, ekipamendu, ostatu turistiko edo bestelako azpiegituren instalakuntzarako irizpide gisa, esistitzen duten eraikinak berrerabili edo birgaitzea gomendatzen da. Era honetara, egitura berrien eraikuntza minimizatuko da.
- Landa-eraikin tradizionalen berroneratze eta balioan jartzea sustatzea gomendatzen da.
- Landa-asentu eta auzoen kolmatazioa bultzatu, interstizioak betez, eta ahal denean, gaur egungo mugetatik harago lurzoru urbanizagarri berririk sailkatu gabe. Eraikuntza berrien kasuan, baserrien eraikingintza-tipologia mantentzea aholkatzen da, diseinu edo eredu zehatzen finkatzearen bidez (udal planeamenduei txertatuta eta hauengatik zehaztuak).

ADIERAZLEAK

- Landa-eremuan dauden gune edo auzoetan, dauden eta eraiki diren etxebizitza kopuruaren bilakaera (bai lurzoru Ez Urbanizagarrian nola Urbanizagarrian sailkatutakoetan).

KOKALEKUA

- Aginaga.
- Ergoien
- Karrika

***U.C.2 Landa guneak mantentzea***

- Gurutze
- Ereñotzu
- Urdaiaga

***U.C.3 Hiri kokalekuetan dagoen landare-paisaia mantentzea.***

EKINTZAK

- Hiri- eta industria-eremuen barnean modu isolatuan lekututa dagoen azpiegitura berdea babestu eta mantendu. Espazio hauei ingurumen-balioa eta estetikoa gehitzen dieten elementuak dira, eta nekazal-, baso- eta natura-erako partzelak izaten dira; baita esistitzen duten zuhaizti, lorategi eta berdeguneak ere.
- Nekazaritza eta Basozaintzako LPP eta LPSaren zehaztapenak era bizkor eta eraginkorrean udal-planeamenduetan txertatu, guneen inguruan kokatutako nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizte-eremuak babesteko asmoz. Lehentasunez, hiri-eremuekin mugakide diren espazioak mantentzeko neurriak zehaztea proposatzen da, daukaten paisaia- eta ingurumen-balio handiagatik.
- Paisaiari ekarpen esanguratsua egiten dioten partzelen jabeekin “lurralde-kontratuak” ezarri gune hauetan. Kontratuetan lursail pribatuen maneiua eta aprobetxamendua aztertuko da, paisaia mantendu eta hobetzeko helburuarekin.
- Paisaiaren ikuspuntutik praktika egokiak sustatu, jabeen artean eta formazio-saioetan hedatuko litzatekeen gomendioen eskuliburu baten bidez.

ADIERAZLEAK

- Udalerri bakoitzean azpiegitura berdeari bideratutako azalera, eta haren bilakaera.
- Udalerri bakoitzean biztanleko Espazio Libreen Sistema Orokorrera eta Tokikora bideratutako azalera, eta haren bilakaera.

KOKALEKUA

- Ekintza hauek aplikagarriak izango diren babestu beharreko azpiegitura berdeko azalerak “Paisaiaren Kalitateko Helburuen Mapa I eta II”n kokatu dira.

***U.M.1 Ikus-kalitate txikiko etxetarako kokalekuak hobetzea.***

EKINTZAK

- Hiri-kaskoetako ibai- eta itsas-aurreen birgaitze eta balioa emateko lanak sustatzea gomendatzen da: fatxaden tratamenduak, elementu disonante eta heterogeneoen berregituraketa (itxiturak, toldoak, estalpeak, e.a.)
- Hiri-birgaitze eta berroneratzean gehien narriatutako hiri-ehundurari balioa ematera zuzendutako integrazio eta ikuspen-hobekuntzarako irizpideak erabili.
- Aparkaleku-eremuak ikuspen aldetik hobetzea gomendatzen da, hiri-espazioan integratuz.
- Kalitateko paisaiak sortuko dituzten espazio publiko berriak sortu, bazter utzitako edo bizitegi-eremuetatik kanpo kokatu beharko liratekeen jarduerak dituzten eremuei, eta abarri irabaziz. Bateragarritasun zaileko erabilerak dituzten isolatutako industrien kasua da, zeintzu apurka-apurka industria-poligonoetan birkokatzeko gomendioa egiten den.
- Kiebran dauden enpresen inguruaren narriadura arriskuak ekiditeko neurriak ezarri.
- Hiri-zuhaiztia hobetu eta zabaldu, inguruarekin bat datozen espezieak aukeratuz.
- Hiri-altzariak eta seinalizazioaren aukeraketan paisaiaren integrazio eta kalitate estetikorako irizpidea onetsi. Kokatuta dauden hiri-paisaiaren kalitatea modu nabarmenean murrizten duten elementuak ordezkatzeko gomendioa egiten da.

ADIERAZLEAK

- Eremu Funtzionalaren barnean hiri-lurzoruen onartutako Plan Bereziak.
- Udalerri bakoitzean bizitegien hiri-paisaian eragina duten birgaitze eta bestelako aktuazioen onartutako proiektuak.

- Eraikinen obra-lizentzien kopurua ibai eta itsasertzeko polizia-eremuen barnean.

KOKALEKUA

- Lasarte-Oria: Cocheras, Ensanche, Goikale, Iñigo De Loiola, Loidi-Barren, Okendo, Sasoeta, Urdaneta, Villas, Zumaburu.
- Andoain: Etxebarrieta, Izturitzaga, Karrika, Txitibar, Zumea.
